

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****100. zenbakia****Data 2007-05-23****14531 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA  
ARETXABALETAKO UDALA****Nekazal eremuan hondakin uren saneamendua arautzeko udal ordenantza.****ARETXABALETAKO UDALA***Iragarkia*

Bi mila eta zazpiko martxoaren hamabian izandako Osoko bilkuran Aretxabaletako Udalak Aretxabaletako landa hiriguneko gorotz-uren saneamenduaren Udal ordenantza arautzailea onartu zuen eta jendaurreko epean inolako murtzilorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, aipatutako ordenantza behin betikoz onartu dela ulertzen da.

**ARETXABALETAKO LANDA HIRIGUNEKO  
GOROTZ-UREN SANEAMENDUAREN UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA****SARRERA**

Landa hiriguneko komunitate txikietatik, nahiz etxebizitza edo instalazio bakunetatik datozen gorotz-uren isurketak arazoak dakartza, ingurugiroa kaltetu dezakeelako edo uraren baliabideen kutsatze arazoia izan daitekeelako. Arazoa areagotu egin da adierazitako komunitate edo etxebizitzetako ur-hornidurak gehitu diren neurrian.

Aretxabaletako Udala planteatzen ari den helburuetako bat, landa hiriguneko bizitza kalitatea hobetzea da.

Helburu hori lortu ahal izateko ekintza batzuk aurrera eraman dira dagoeneko, hala nola, sarbideen hobekuntza eta baserriak edateko uraz hornitzea. Ondorioz eta edateko uraren hornikuntzarekin hasitako lan hauei jarraipena emanez, landa hiriguneko kokaturik dauden etxebizitzetako higienizazioa eta asepsia bultzatzea eta hori lortzeko laguntzak eskaintzea planteatzen da. Ondorio horietarako ordenantza hau idazten da, ingurune horretako saneamenduak erregularizatzeko eta Hobi Septikoak jartzeko, etxe hauetako urak ezin baitira saneamendu sare batera eramanak izan.

*1. artikulua. Orokortasunak eta helburua.*

1.1. Ordenantzaren helburua da dauden alternatiba bideragarriak planteatu eta baloratzea nekazaritza lur bezala sailkatuta dauden zonetan kokatutako, nekazaritza-abeltzaintza ustiapenei lotutako edo etxebizitza iraunkorrera zuzendutako etxebizitzetatik datozen hondakin uren saneamendua egiteko.

Arautzen diren arazketa sistema hauek hondakin urak tratatzera bideratuak egongo dira, ustiapen xume eta mantentze prozesuen bidez. Egingo diren hobien ezaugarri teknikoak, eranskinean adierazten diren ezaugarrietara lotu beharko dira.

1.2. Ordenantza honek, landa hiriguneko bizi diren haiek izan ditzaketen aukera ezberdinak arautuko ditu, saneamendu instalazioen (hobi septikoen) gauzatze, finantzaketa eta mantentzeari dagokienean.

1.3. Ordenantza honetatik kanpo geratuko dira, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako ustiategi edo instalazioei lotutako uren arazketa instalazioak, berriazko ustiapen proiektuan jaso beharko baitute ustiapen bakoitzeko hondakin uren tratamendua.

Halaber, ordenantza honetatik kanpo geratzen dira, landa ingurunean kokatutako turismo- eta hotel-ustiapenetako hondakin urak arazteko beharrezko diren lanen finantzazioa, aplikaziozkoa izanik, turismo- eta hotel- instalazio horietako hondakin urak arazteko instalazioen mantentze gastuak.

*2. artikulua. Oin berriko lanak edo birmoldaketakoak.*

Ordenantza hau indarrean sartzen den unetik aurrera, etxebizitzetako edozein birgauzatze, sendotze nahiz finkatze lan eta oin berriko lan edo baserrien birmoldaketa lanak hobi septikoaren derrigorrezko gauzatzearen baldintzapean egingo dira, beti ere instalazio hau ez dagoen kasutan.

*3. artikulua. Gauzatzea eta finantzaketa.*

Hobi septikoen gauzatzea aurrera eraman ahal izango dute, bai etxebizitzetako jabeak, baita Udalak ere. Edonola ere jabeak hobia ezarri ahal izateko lursailak eta era berean hartunaren adarrek eta beharrezko diren hustubideek hartzen dituztenak jarri beharko ditu edo Udalaren eskura jarri.

Proiektuaren idazketa udal zerbitzu teknikoek edo jabeek egingo dute; eta edozein modutan ere berau Udalak onartu beharko du derrigorrez.

Beharrezko diren lanen finantzaketa etxebizitzaren jabeek, Udalak edo hala erabakiz gero bien artean bere gain hartu ahal izango dute.

Udalaren eta partikularren artean adostu ahal diren modalitateak honako hauek dira:

a) Oin berriko instalazioetan:

1.

1.a) Ezarketa gastuen finantzaketa, Udalak babesteko gai den bezala aitortzen duen obra proiektuaren aurrekontuaren %100eko ekarpenarekin, baldin eta, Nekazari-Ganberan altan dauden eta nekazaritzako nahiz abeltzaintzako ustiapena duten baserriak badira.

1.b) Ezarketa gastuen finantzaketa, Udalak babesteko gai den bezala aitortzen duen obra proiektuaren aurrekontuaren %30eko ekarpenarekin, baldin eta Nekazari-Ganberan altan ez dauden nekazaritzako nahiz abeltzaintzako ustiapena duten baserriak badira.

2. Jabearen aldetiko finantzaketa. Kasu honetan obra zerga ordaintzetik salbuetsia geratzen da. Edonola ere obra lizentzia edukitzea ezinbesteko baldintza izango da.

b) Dauden instalazioetan:

1.

1.a) Udalak zaharkituak daudela irizten dituen instalazioetan edo 1. Eranskinean adierazten diren instalazio baldintzak argi eta garbi ez dituzten haietan aurrera eramandako egokitzapen lanen aurrekontuaren %100aren finantzazioa Udalaren aldetik, baldin eta Nekazari-Ganberan altan dauden nekazaritzako nahiz abeltzaintzako ustiapena duten baserriak badira.

1.b) Udalak zaharkituak daudela irizten dituen instalazioetan edo 1. Eranskinean adierazten diren instalazio baldintzak argi eta garbi ez dituzten haietan aurrera eramandako egokitzapen lanen aurrekontuaren %30 finantzazioa Udalaren aldetik, baldin eta Nekazari-Ganberan altan ez dauden nekazaritzako nahiz abeltzaintzako ustiapena duten baserriak badira.

#### *4. artikulua. Mantentzea, kudeaketa eta ustiapena.*

Bi eskuartze posible aurreikusten dira:

1. Ongi funtzionatzen dutela ikusteko instalazioetara egingo diren agerraldi sistematikoak, urtean behin.

2. Instalazioen mantentzea, ezarritako taldeei egokitu. Hobi septikoen kasu honetan, koipeen garbiketa bisitaldi bakoitzean egingo da. Lokatzek hartzen duten azalerarena urte bete edo bi urtez behin. Lokatzak garbitzerakoan kontuan hartu beharko da hauetako %10a gutxienez, hobiaren barruan utzi behar dela.

Mantentzea, kudeaketa eta ustiapena udal zerbitzuek eramango dute aurrera. Dena den lan hauek partikularrek onartu beharko dituzte, egin beharreko lan hori hobi septikoen instalazioetara inolako trabarik gabe eta zuzen zuzenean sartuz egin dezaten.

Mantentze kostuen finantzaketa Udalaren kontura izango da honako kasu hauetan:

a) Oin berriko instalazioetan. 3.a) artikuluko 1. a) eta 1. b) puntuetan aurreikusitakoak.

b) Dauden instalazioetan. 3.b) artikuluko 1. a) eta 1. b) puntuetan aurreikusitakoak.

Arestian aipatu diren kasu guztietan, Zerbitzu Publikoak Emateagatiko Zergaren Ordenantza Arautzailea aplikatuko da, eta zehazki B) atala: Estolderia, hau da:

1. Uraren fakturazioarekin, bere zenbatekoaren gaineko %30a.

2. Uraren fakturarik gabe: Hiruhilabete bakoitzeko 3,91 €

Partikularrek finantzatutako instalazioak dauden, eta arestian adierazitako mantentze baldintzetara lotu nahi ez duten gainontzeko kasuetan, Udalak hobi septikoen garbiketarik ondorioztatutako gastuen %50a diruz lagunduko du, beti ere garbiketa hau Udaletik kudeatzen bada.

#### *5. artikulua. Instalazioen titularitatea.*

Hobi septikoak, kasu guztietan titularitate pribatukoak izango dira. Euren garbiketari dagokionean instalazioen mantentzea Udalaren kontura izan daiteke, 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

#### *6. artikulua. Hondakin urak biltzeko kolektoreak.*

Posible den zonetan, hondakin urak jasoko dituen elementua dagokion kolektorea izango da, hobi septikoen erabileraren kalterako.

Udalak, ezartzen diren kolektore berri guztien gauzatzetik ondorioztatutako gastuen %100a hartuko du bere gain.

Okupatu beharreko lursailak Udalaren esku jarriko dituzte partikularrek, hau da, saneamendu sarearen onuradunek, lursail hauek Aretxabaletako Udalaren aldeko bide-zorraren eskubidea edukiko dute,

instalazioaren mantentzerako, eta Udalarenak soilik kolektoreen instalazioa eta erregistrorako arkatilak izango dira.

Lehendik dauden kolektoreen kasuan, Udalaren kontura izango da hauen mantentzea, kudeaketa eta ustiapena.

Kolektorera egiten diren arestian aipatutako isurketen kasuetan Zerbitzu Publikoak Emateagatiko Zergaren Ordenantza Arautzailea aplikatuko da, eta zehazki B) atala: Estolderia, hau da:

1. Uraren fakturazioarekin, bere zenbatekoaren gaineko %30a.
2. Uraren fakturarik gabe: Hiruhilabete bakoitzeko 3,91 €

#### ERANSKINA

### IRAGAZKI BIOLOGIKOEKIN OSATUTAKO HOBI SEPTIKOEN DISEINUA

#### HOBI SEPTIKOAK

— Hondakin urak hobi septikora isuri aurretik, koipeak banatzeko saretxo bat edukiko duen hartunerako arkatila bat jarriko da.

— Eguneko 6.000 litrorara arteko hondakin uren isurketetarako, kamara septikoak eduki beharko duen edukiera gutxienez, egun eta erdian botatzen diren ur zikinen berdina izan beharko da.

— Eguneko 6.000 eta 40.000 litrorara arteko hondakin uren isurketetarako, tankearen gutxieneko edukiera erabilgarria 4.500 litrokoa izango da, gehi hondakin uren eguneroko isuriaren %75a, honako formularen arabera:

$$V = 4.500 + 0,75Q$$

non:

V: Hobiaren bolumena den litrotan. eta

Q: Hondakin uren eguneroko ekarpena da. Hondakin ur hauek eguneko 40/m<sup>3</sup>tik gora direnean, hobeagoa da dekantazio/digestio tankeak erabiltzea.

Hobi septikoen baldintza osagarriak:

- Tankearen luzera: Bi eta hiru bider artean zabalera.
- sakonera erabilgarria: 1,2m. eta 1,70 m.artean.
- Uraren nibelaren gaineko gutxieneko babesa, 0,30 m.tik gorakoa.
- Bi kamara dituenan lehenak %66ko bolumen erabilgarria edukiko du.
- Hiru kamara dituenan, lehenak %50eko bolumen erabilgarria edukiko du, eta beste bietako bakoitzak %25a.

#### IRAGAZKI BIOLOGIKOAK

Hobi septikoen osagarri diren iragazki biologikoen ezaugarriak honako hauek izango dira:

<i>Biztanleria / Población</i>	<i>N. (Kop)</i>	<i>Diametroa</i>	
<i>Herritar baliokideak.</i> <i>Habitantes equivalentes.</i>	<i>N. (n.º)</i>	<i>Diámetro</i> <i>(m)</i>	<i>H (m)</i>
4tik 5era / 4 a 5	1	1.50	1.50
6tik 10era / 6 a 10	1	1.80	1.80
11tik 15era / 11 a 15	1	2.40	1.80
16tik 20ra / 16 a 20	2	1.80	1.80
21etik 25era / 21 a 25	2	2,10	1.80
26tik 30era / 26 a 30	2	2.40	1.80

31tik 40ra / 31 a 40	2	2.70	2.40
41etik 50era / 41 a 50	2	3.00	2.40

Aretxabaleta, 2007ko maiatzaren 10a.—Alkatea.  
(759) (5805)